



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko ekainaren 9ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko ekainaren 9an, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : JORAJURIA Ramuntxo.

Deialdiaren eguna : 2023ko ekainaren 2a

Afitzatze eguna : 2023ko ekainaren 2a

4. ERABAKIA: TOKIKO HAUTETSISIEN DEONTOLOGIA ERREFERENTEAREN IZENDAPENA

(5.6 nomenklatura)

Auzapezak

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L 1111-1-1 artikulua;

IKUSIRIK, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorra,

IKUSIRIK, Frantziako 2015eko martxoaren 31ko 2015-366 legea, hautetsien karguen gauzatzea errazteko xedea duena;

IKUSIRIK, Frantziako 2022ko otsailaren 21eko 2022—217 legea, diferentziazioari, deszentralizazioari eta deskontzentrazioari buruzkoa, tokiko ekintza publikoaren sinplifikatzeko xedapenak ematen dituena.

IKUSIRIK, Frantziako 2022ko abenduaren 6ko 2022-1520 dekretua, tokiko hautetsien deontologia erreferenteari buruzkoa;

IKUSIRIK, Frantziako 2022ko abenduaren 6ko ordenantza, egun bereko 2022-1520 dekretua aplikatzeko hartu dena, tokiko hautetsien deontologia erreferenteari buruzkoa;

IKUSIRIK, Auzapezaren azalpenak,

1. artikulua: Deontologia erreferentearen izendapena

2023ko ekainaren 1etik, tokiko hautetsien deontologia erreferente bat ezarriko da, Frantziako 2022ko abenduaren 6ko dekretuak finkatu baldintzetan, Ortzaizeko herri biltzarkideentzat. Annie FITTE-DUVAL andereak beteko du deontologia erreferente funtzioa. FITTE-DUVAL andereak Paueko Unibertsitatean zuzenbide publikoko konferentzia maisua da, deontologia publikoan berezitua.

Misio-gutun batean bere funtzioari dagozkion eskuhartze baldintzak, konfidentzialtasuna eta lanbide sekretua finkatu dira. Herriko hautetsi guztiek izanen dute misio-gutun horren berri.

2. artikulua: Deontologia erreferentearen eginkizuna

Tokiko hautetsientzako erreferenteak honako eginkizunak beteko ditu:

- Tokiko hautetsiaren kartan biltzen diren deontologia printzipioen errespetatzeko aholkuak ematea,
- Herriko hautetsien interesak eta ondasun egoera deklaratzeko, Frantziako Bizi Publikoaren eta Gardentasunaren Goi Agintearen solaskidea izanen da hautetsi batek bere eskuhartzea eskatzen duenean.

3. artikulua: Erreferentearen betebeharrak

Deontologia erreferenteak Frantziako 2022ko abenduaren 6ko dekretuan eta Zigor Kodeko 226-13 eta 14 artikuluen baldintzetan, bai lanbide sekretua baita lanbide diskrezioa ere bermatu beharko ditu.

4. artikulua: Deontologia erreferentearen independentzia eta inpartzialtasuna

Tokiko hautetsien deontologia erreferente funtzioa modu independente eta inpartzialean betetzen da. Bere funtzioak betetzen dituenean, deontologia erreferenteak ezin du bera izendatu duen agintearengandik edo haren ordezkariarengandik agindurik jaso, eta era berean ezin du berak aginte horrengana jo.

Zehazten da baita ere, funtzio horren betetzeak ez duela hautetsiaren erantzukizuna baztertzen, zeina deontologia betebeharren arduradun bakarra baita.

5. artikulua: jarduera baldintzak

Bere eginkizunaren burutzeko, deontologia erreferenteak honako baliabide materialak izanen ditu eskura:

- Bulego ekipatua (ordenagailua, inprimagailua eta telefono finkoa) Pirinio Atlantikoetako Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroaren lokaletan - Paueko Auguste Renoir karrikan;
- posta elektronikoa berezko helbidearekin;
- Telefono adimentsua (mezutegia edonondik kontsultatu ahal izateko);
- Balizko garraio gastuak.

Nola eskatu erreferentearen eskuhartzea?:

- Honako helbidean eskuragarri den formularioa betez: www.adm64.fr ("Défendre" atalean) edo

- Eskuratze agiridun gutun bidez, honako helbidera: Madame le référent déontologue des élus locaux – Maison des Communes – Cité Administrative Rue Auguste Renoir - CS 40609 - 64006 PAU Cedex.

Gutunazalean « confidentiel » aipamena agertu beharko da.

Erantzuna, iritzi zehaztu modura epe onargarrietan eman beharko zaio eskaera egin duenari.

6. artikulua: Izendapenaren iraunaldia

Tokiko hautetsien deontologia erreferentea agintaldirako izendatzen da.

7. artikulua: Deontologia erreferentearen urteko txostena

Pedagogia xede batekin, deontologia erreferenteak misioa eman dion egitura bakoitzari urteko eskuhartzeen eta eman dituen erantzunen bilduma aurkeztuko dio, izenik eman gabe. Txostena, Auzapez eta Elkargoetako Presidenteentzako Departamenduko Elkarteari eta Lurralde Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroari igorriko zaio baita ere.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

Annie FITTE-DUVAL anderea IZENDATU DU, tokiko hautetsien deontologia erreferente izateko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko ekainaren 9an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/06/16an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/06/16an.